

## ARROLATARREN PATUA

Bazen Legazpin bizi zen artzain bat, oso amazuloa bera. Xanti zuen izena. Basoan galduta zegoen baserri batekoa zen; Arrolakoa, hain zuzen. Baina etxean ez zuen berak inolaz ere agintzen, amak baizik. Artzainak amandre deitzen zion eta guzti...

Mendizale fina zen Xanti: Gipuzkoa barnealdeko txoko guztiak goitik-behera ezagutzen zituen. Egunero, gutxienez, hamar kilometro egiten zituen artaldearekin oinez. Bere zakur Latz ere ez zen inoiz falta. Baratzean ere ederto moldatzen zen eta abereek egundoko estima zioten.

Behin gertatu zen ardiak lasai asko bazkatzen zeudela, Latz zaunkaka hasi zela. Xanti zuhaitz baten azpian zegoen lokuluxka egiten. Berehala zutik jarri eta zakurrarengana hurbildu zen, zer gertatuko ote zitzaien jakiteko.

Amildegia bateraino iritsi zen artzaina eta laku lasai bat topatu zuen behekaldean. Bertan lauzpabost emakume zeuden, erdi biluzik bainu bat hartzen. Hura sorpresa Xantirena! Lerdea zeriola geratu zen eurei begira.

Halako batean, Xantik nahi gabe estroputz egin eta harri koxkor bat jaurti zuen amildegian behera. Uretara iritsi bezain pronto "plop!" entzun eta emakumeak ziztu bizian ezkutatu ziren erreka inguruko sastraka artean. Gehiegi gerturatu nahi izateagatik gertatu zitzaien hori. Triste xamar izaki misteriotsu horiek uxatu izanagatik, artaldearen bila abiatu ziren Xanti eta Latz. Bazkalordua zen.

Menditik baserrira jaitsi ziren orduan. Ardiak ikuiluan gorde eta Latz bere etxetxoan lotu ostean, sukaldera abiatu zen Xanti. Betiko legez, amak mahaia jarrita zeukan honez gero. Baina Xantik ez zuen goserik. Artzaina oraindik amildegian ikusi zuenarekin liluratuta zegoen. Amak azkar antzeman zion.

— Hara! Jaitsi adi ilargitik, seme! Ta hartu zak salda, hoztu baino lehen — esan zion purrustaka.

Xantik goilara hartu eta zopa zurrupatzen hasi zen, oso formal.

Hurrengo egunean berriz abiatu zen mendira ohiko moduan. Baina oraingo honetan artaldea eta Latz amildegia goikaldean utzi zituen eta Xanti lakura jaitsi zen. Jakinmin handia zeukan.

Pagoen enborrez baliatuz maldan behera zihoala, zarata bat entzun zuen bizkarrean. Atzera begiratu zuen baina ez zegoen inor. Berriz ere aurrerantz biratzean, egundoko sustoa hartu zuen Xantik. Parez-pare emakume azalzuridun eta ileluze bat zeukan artzainak, oso irrifartsu. Oinetaraino iristen zitzaien soineko beix bat zeraman jantzita.

Sorginkeria bailitzan, artzaina momentu jakin hartan maitemindu egin zen. Neskatilak narrats itxurak zituen arren, ederra zen oso.

Orduan konturatu zen Xanti neskatilak ez zekiela hitz egiten eta keinuen bitartez komunikatzen zela. Eskuekin berarengana gerturatzeko esaten zion artzainari, uretara gerturatu zedin. Txunditurik, Xantik jarraitu egin zion urmaelera iritsi arte.

“*Plaust!*” entzun zuen artzainak, eta konturatuko orduko neskatila uretan zegoen, igerian. Ur ertzera hurbildu eta belauniko jarri zen Xanti. Orduantxe alboratu zitzaion berriz neska, soilik burua agerian zuela. Eskua luzatu eta artzainaren alkadorako poltsikotik gaztadun ogitarteko bat atera eta ziztu bizian irentsi zuen. Xanti harriturik zegoen neskatoaren jarrera basatiarekin. Ardo zatoa eskaini zion gero. Trago batez hustu zuen zatoa neskak.

Jarraian, urrezko eraztun bat jarri zion hatzean Xantiri esker gisa. Musu eman zion gero.

Iluntzen hasia zen eta etxera bueltatzeko ordua zela pentsatu zuen Xantik. Amildegira ardien bila igo eta baserrirantz abiatu zen.

Etxera iritsi orduko, amak semearen hatzean urrezko eraztuna ikusi zuen.

— Xanti Elortondo Aranguren! Ergela zara gero! Ez zaizu hoberik okurritu oraingoan, lami zikin horiekin batzea baino! — egin zion gogor errieta.

Xanti besotik heldu eta baserritik atera zuen erdi arrastaka.

— Hator adi nirekin elizara derrepentean! — sututa oihukatzen ziolarik.

Herriko elizara iritsi ziren apaizarekin hitz egitera. Amak elizgizonaren laguntza beharrezkoa ikusten zuen semeari begiak irekitzeko.

— Egiok kasu amari, Xanti. Berak bazekin zerbait. Eraztun horrekin kateatuta utzi dik ta — konbentzitzen saiatzen zen apaiza.

Xantiri pazientzia agortzen hasia zitzaion.

— Eraztuna gauerdia baino lehen kentzen ez baduk, akabatuta hao, seme — errepikatzen zion amak artzainari.

Orduan, egundoko garrasiak egin zion ihes Xantiri.

— Ki-ttoooooooooo!!!! — oihukatu eta eliza osoan egin zuen oihartzun. Apaiza eta ama etsituta geratu ziren, Xantik eliza nola uzten zuen begira.

Xantik sudurretik kea zerion, bere maitasunezko erlazioaren aurka zeudela uste baitzuen. Korrika batean baserrirantz abiatu zen gazta eta ardo zatoaren bila. Latz ere askatu zuen mendian gora abiatzeko. Ardiek, irten nahian, "beeee" egiten zuten protestaka.

— Sooooo, andriak! Ez da ta zuen txanda! —erantzun zien jabeak presaka.

Latz eta Xanti mendira igotzen hasi ziren. Eguzkia bazihoan eta gaua bazetorren. Latzek Xantiri mahukatik heltzen zion eraztuna kendu zezan. Zakurrak, amak eta apaizak bezala, arriskua usaintzen zuen. Artzainak ordea, ez zion jaramonik egin, lakura iristea zuen helburu.

Eguzkiaren arrastorik ez zegoen jada potzura iritsi zirenean. Xantik gazta eta ardo zatoa haitz baten gainean ipini zituen erreklamo gisa. Zuhaitz artean ezkutatu zen gero Latzekin batera. Segundu batzuen ostean, ordurarte ikusi ez zituen bi emakume agertu ziren jakiak irenstera. Orduan ohartu zen artzaina amak esaten zuena egia zela. Apaizak ere arrazoi zuen. Neskato horiek ahate hankak zituzten: bene-benetako lamiak ziren.

Latzi negar txiki batek egin zion ihes. Beldurtuta zeuden biak. Lamiek zarata entzun eta ziztu bizian ezkutatu ziren, ziraunak bailiran.

Xanti goibelduta zegoen oso. Ez zen neskato batetaz maitemindu, lamia batetaz baizik. Eta honez gero berandu zen eraztuna hatzetik kentzeko. Hala ere, Xantik saiatu egin nahi zuen. Baina alferrik. Eraztunak ez zuen inolaz ere irten nahi. Etsituta, harri puska bat hartu eta "zast!" hatza moztu zuen Xantik kolpe zehatz batez, eraztun eta guzti.

— Aaaahhhhhh! — entzun zen baso osoan barrena.

Zaurituta eta Latz ondoan zuela iritsi zen Xanti baserrira. Amak semearen eskua odoletan ikusi eta senda-belarrez baliatuz garbitu egin zion berehala. Oheratzen lagundu zion gero.

— Ondo lo egin, seme — agurtu zitzaion ama, oso triste, kopetan musu emanez.

Egunsentian, oilarraren kukurukuarekin batera irten zen ama baserri kanpora. Latzen etxolara gerturatu zen gosaria ematera. Zakurrak, aldiz, ez zuen etxetxotik irten nahi. Platertxoak janez gainezka zeukan gainera. Latzek, amaren antzera, bazekien Xanti ez zela inoiz gehiago esnatuko. Izan ere, eskarmentua zuten biek.

Pare bat egunen buruan, ama hilerrira joan zen eskuetan lore sorta bana zeramatzala. Semearen harriaren ondoan bazegoen beste urratuago bat, aita zenarena, alegia. Eta honela zihoen: Hemen datza ehortizirik Joxean Elortondo Aranguren. Goian bego.

Ordunik, Legazpiko bizilagun edadetuenak ere badaki, lamiei kontrakoa hartzen dion ororen patua Arrolatarrena bezalakoa izango dela.

*Sinetsi nahi ez duenak berehala  
bertara joan eta ikus dezala.  
nahiz eta Arrola zutik ez dagoen jada,  
neuk diotsuet hau egia dala  
gari heldua berdea ez dan bezala.*

**AMAIA**